

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA EZ DA DERRIGORREZKOA!!!

2020/2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak EAEko ikastetxeetan burutu nahi duen Ebaluazio Diagnostikoa, zuzendaritzak hala erabakitzen badu, ez da derrigorrezkoa izango.

Azken egunetan hainbat langilek, ikastetxek eta LAB sindikatuak berak, eskaera zehatza egin dugu ikasturte honetarako aurreikusita eta onartua dagoen Ebaluazio Diagnostikoa egitea ez dadin derrigorrezkoa izan. Azken finean, bizi dugun egoera ez ohikoa izanik zenbait neurri malgutzea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Hala eta guztiz ere, LAB sindikatuan beharrezkoa ikusten dugu ebaluazio diagnostikoa, hezkuntza prozesuak eta metodologiak aztertzeaz gain, hezkuntza sistema bera aztertuko duen prozesua izatea. Beraz, ikaslea prozesuaren erdigunean kokatuko duen ebaluazio hezitzailea eskatzen jarraituko dugu.

Euskal Herrian, 2021eko otsailaren 12an

LAB IRAKASKUNTZA